



2. Gaia: **ELKARRIZKETA KULITATIBOA ETA MOTAK**

PLANTEAMENDU OROKORREN 4 ETAPAK



SAKONEKO ELKARRIZKETAREN EZAUGARRIAK

Bi pertsonen arteko elkarrizketa profesionala da eta elkarrizketatuen subjektibitateari esker informazio aberatsa eta konplexua lortzean datza. Ikerketaren trenetako bat da eta elkarrizketatzailearen eta elkarrizketatuaren arteko giroa konfiantzazkoa izan behar da. Elkarrizketa profesionala izateko hitzordu bat ezarri behar da eta ematen diren erantzunak ezin dira estandarizatuak izan, malguak izan behar dira. Gidoia eta Prozedura kontrolpean izan behar ditugu eta galderak helburuetara zuzendu behar dira ezagutza lortzeko, baina elkarrizketatuaren askatasuna errespetatu behar dugu beti ere.

Elkarrizketa kualitatiboa eta galdetegia ez dira berdinak 4 arrazoiengatik: egituraketa maila desberdina da, batek ulermena du eta besteak dokumentazioa,

adierazgarritasuna desberdina da batek estatistikoko lan egiten duelako eta besteak ez estatistikoki, sanjatuarengan oinarritutako irizpideak hartzen dira kontuan elkarrizketa eta bestean berriz ikuspuntu holistikoa eta zatiketa.

	SAKONEKO ELKARRIZKETA (ELKARRIZKETA IREKIA) METODOLOGIA KUALITATIBOA	GALDETEGIA (ELKARRIZKETA ITXIA) METODOLOGIA KUANтитATIBOA
LAGIN EZA VS. LAGIN ADIERAZGARRIA	-Aztergai baten inguruan egoera eta posizio sozial desberdinak ezagutzeko helburua du. -Ikerketarako garrantzitsuak diren aldagaiak zehaztuz hautatzen dira elkarrizketatuak.	-Laginketaren ondorioz lan adierazgarri batekin lan egiten da galdetegiaren subjektuak aukeratzeko. -Adierazgarritasunak jasotako datuak populazio osora zabaltzeko ahalbidetzen du.
SUBJEKTUAK VS. ALDAGAIK	-Subjektuaren subjektibitatea beraien testuinguruan ulertzea bilatzen du. -Bizipenak eta horiei atzizkituriko esanahiak aztertzen ditu.	-Subjektuak aldagaietan segmentatzen ditu zenbakizko datuak lortu ahal izateko. -Zergatiak aztertzen ditu.

	SAKONEKO ELKARRIZKETA (ELKARRIZKETA IREKIA) METODOLOGIA KUALITATIBOA	GALDETEGIA (ELKARRIZKETA ITXIA) METODOLOGIA KUANтитATIBOA
ESTANDARIZAZIO EZA VS. ESTANDARIZAZIO ALTUA	-Elkarrizketatuak aztergaiaren inguruan bere subjektibitatea adierazi dadin elkarrizketatzaileak galdera marko bat eskaintzen du. -Elkarrizketatuak protagonismoa du eta elkarrizketatzaileak hizketa eragiten du.	-Ikertzen diren subjektuak ikertzaileak zehaztutako diseinuan alde-aurretik ezarritako erantzunen artean aukeratu behar du. -Diseinuak ez ditu ez aldaketak ezta gogoeta onartzen.
ULERMENA VS. DOKUMENTAZIOA	-Datu deskriptiboak jaso nahi ditu. -Pertsonen diskurtsoen bidez haien subjektibitatea ulertu nahi du sakontasuna eta kalitatea gailenduz. -Aztertzen den gertakari sozialaren zergatiak ezezagunak dira eta elkarrizketaren bidez ulertu egin nahi du.	-Pertsonen zenbakizko datuak jasotzea du helburu. -Datuen kantitatea eta zabalera gailentzen ditu. -Datuak jasotzen dira aldagaiak kuantifikatu eta alden du ahal izateko.

SAKONEKO ELKARRIZKETA

Abantailak konplizitatea dagoela eta esanahiak, arrazoiak, jokabideak etab sakonki eta zehaztasunez aztertu daitezkeela. Gainera, gai bateri buruzko informazioa eta azalpen eza asetzeko bikaina da. Baina beste alde batetik desabantailak ere badaude, adibidez elkarrizketatuen soiltasuna diskurtsoa eraikitzeko, lortu nahi dugun informazioa ez lortzea edo elkarrizketagilearen eragina elkarrizketatuengan islatzea.

SAKONEKO ELKARRIZKETA MOTAK: Banakakoak edo taldekoak, Holistikoak (gai anitzekoak) ala fokalak (gai bakarrekoak) eta egituratuak ala (erdi)ez egituratuak.

		Elkarrizketaren orokortasun mailaren arabera	
		Holistikoa	Fokatua
Elkarrizketagileak zuzentzen duen mailaren arabera	Zuzenduak	Elkarrizketa holistikoa eta zuzendua	Elkarrizketa fokatua eta duen kontrol
	Ez zuzenduak	Elkarrizketa holistikoa eta ez zuzendua	Elkarrizketa fokatua eta ez zuzendua

ZERTAN EZBERDINTZEN DA ELKARRIZKETA HAU OHIKO KAZETARIEK EGITEN DITUZTENETIK?

Galdera mota zabalagoak dira, zeharkakoak, orokorragoak, hitzak errepikatzen dituztenak, ideiak, aipuak, hitz popularrak... Jarrera ere desberdina da, informazio kantitatea baino hemen bilatzen dena sakontasuna, iritzi eta emozioak dira. Eta azkenik gaiak ere desberdinak dira, ikuspuntu desberdinetatik ikusten dira eta konplexutasuna bilatzen da.